

## **“BILBAO IPARRA-HEGOA” SARIA – ESKOLA SOLIDARIOEN MODALITATEA**



### **2011 - I. Edizioa.**

#### **CEP LUIS BRIÑAS SANTUTXU LHI**

CEP Luis Briñas Santutxu LHI Bilboko Santutxun dago. 1942an sortu zuten eta 1996an San Frantziskito eskolarekin lotu zen. Eskola handia da eta hiru ildo ditu. Ikasle gehien duena D eredu da. Lehen Hezkuntzan baino ez dago B. Egun 610 ikasle ditu.

Eskolaren helburuen artean ikastetxera azken urteotan beste herrialde batzuetatik heldutako umeak integratzea dago. Gero eta gehiago izan dira gainera beste herrialde batzuetatik heldutakoak. Integrazio horrek eragin nahi du bai eskolan, bai gizartean. Hizkuntza funtsezkoa dela iritzirik, batzuek badakite gaztelaniaz baina ez euskaraz. Hori dela eta, garrantzi berezia ematen diote gizarteratzean integrazeari eta elkarbizitzari begira hizkuntzari.

Ikastetxeak helburu hauek ditu:

- Euskaraz ondo ez dakien ikasle immigranteei laguntza berezia ematea, komunikazio-trebetasunak edukitzeko bitartekoak izan ditzaten.
- Ikasle horiei euskal hezkuntza-sisteman sartzen laguntzea, eskolan eta gizartean ahalik azkarren eta ondoen integratzeko.
- Curriculum zabal baterantz bilakaera egitea, zientzia eta komunikazio-teknologiak baliabide didaktiko moduan erabiliz.
- Kultura aniztasunaren aldeko jarrera sustatzea eta elkarrenganako errespetu-giroa sortzea.

2010-2011 ikasturtean ikastetxeko proiektuan “Tertulias Dialógicas” izeneko tresna ere sartu dute. Tertulia horiek elkarriketa sustatzeko eta hausnarketari bidea emateko tresna dira, testu baten inguruan sortzen diren interpretazioetan oinarrituta. Tertulia hauen metodologiako abiapuntua irakurketa dialogikoa egitea da; hau da, testuak irakurtzea eta zentzu bat ematea, espazio bereko kideen arteko elkarriketa baten bidez testuak dioena ulertzen eta interpretatzen saiatuta. Iritzi eta ikuspuntuak azalduta, interpretatzen dute testua irakurri dutenek.

Epaimahaikideek interesgarri iritzi diote ekimen honi, ideiak partekatzeko eta hausnarketa egiteko tresna egokia delako ustean. Ikastetxeak kultura artekotasuna onartzeko eta lantzeko zein balioetan hezteko ahalegin handiak egiten dituela deritzote epaimahaikideek. IGEk lanaren emaitzaren jasotzailea izatea ere ondo baloratu dute epaimahaikideek, familiek ikastetxeko proiektuan duten garrantziari erreparatuta.

Epaimahaikideek Bilboko Peñascal auzoko Ingeniero José Orbegozo LHIren aipamen berezia egin nahi izan dute, ikastetxeak dituen ezaugarri bereziak kontuan hartuta. Izan ere, kultura aniztasun handiko ikastetxea da. Proiektu soila aurkeztu arren, epaimahaikideek iritzi diote irakasleak kultura aniztasunaren kudeaketan inplikaturik daudela, eta hori aipatu beharreko balioa da.

## **2012 - II. Edizioa**

### **IES Botikazar BHI**

Botikazar herri-institutua da. Izena kokapenetik hartu du, izen bereko kalean dagoelako. Lehenago itsasketa-eskola eta Hezkuntzako Zientzien Institutua (ICE) izan zen. Egun, batxilergoa eta goi-mailako zikloak ematen dituzte institutuan. 2011-2012 ikasturtean 703 ikasle, 65 irakasle eta irakasleak ez ziren 8 langile zituen.

Vicente Ferrer fundazioa garapenerako gobernu kanpoko erakundea da, Indiako zonalderik txiroen eta behartsuen batzuen, Andhra Pradesh estatuaren eta Indiako kasten sisteman baztertuen eta gaizkien dauden komunitate batzuen eraldaketarako eta hobekuntzarako lan egiten duena.

Botikazar BHIren eta Vicente Ferrer fundazioaren arteko harremanak 2010-2011 ikasturtean hasi ziren. Ikastetxean hitzaldi bat eman eta orduan planteatu zen School to School programan parte-hartzea eta zuzenean Indiako eskola batekin lan egitea. Eskola hau da: NNP Thanda School-Guntakal.

Proiektuak zenbait helburu ditu:

- Ikastetxeko ikasleek hurbiletik ezagutzen duten pobrezian edo bazterketa-egoeretan bizi diren pertsonen egoera. Garapenaren kontzeptu integrala jasotzen dute horrela.
- Ikasleek harremanak dituzte Indiako eskola bateko ( NNP Thabda) ikasleekin eta lotura hori School to School programaren bidez eratzen da.
- Ikasleek ekintza solidarioen emaitzaren berri du eta Anapurreko neskatok bizikletak eskuratzeko proiektuari laguntza emate diote.
- Ikasleek euren gaitasunei buruzko kontzientzia handiago hartzen dute, partaidetza aktiboari, konpromisoari eta lanari esker.
- Ikasleek hobeto ulertzen dute globalizazio-prozesuak eta errealitate sozio-ekonomiko eta kulturalen interakzioa.

Proiektua ikastetxeak duen zeharkako enfokearen barruan dago, zehatzago, Ekonomia ikasgaietan. Giza eta Gizarte Zientzien Batxilergoan eskaintzen da ikasgai hori eta Garapenerako Hezkuntzarekin zerikusia duten edukiak jasota daude.

Helburuen artean, ikasleek globalizazio-prozesuak eta honen orekak eta desorekak ezagutzea dago; eta arreta berezia eskaintzen zaie iparraren eta hegoaren arteko harremanei, horri buruz iritzi kritikoa garatu dezaten. Helburu honen garapen zehatzerako, egungo desoreka ekonomikoaren analisia xede duen gai-multzo bat dago

## **2013 - III. Edizioa**

### **Colegio Calasancio – Escolapios Ikastetxea**

Calasancio-Escolapios ikastetxea hezkuntza zentro kristaua, itunpekoa eta eleaniztuna, tira handikoa bere historian zehar. Misioa ebanjelizatzea da, umeen eta gazteen hezkuntza integralaren bidez, mundu hobearen alde eginez, hezkuntza-komunitateko kide guztiak inplikaturik eta ikastetxea topagune izateko eskaintzea eskola-garaitik eta eskola-adinetik haratago. Hori guztia, Bilbon dagoela kontuan hartuta, euskal errealitatea eta escolapioen beste ikastetxe batzuen eta Kristau Eskolaren sarean dagoela kontuan hartuta.

Itaka Fundazioa, escolapioen orden erlijiosoak eta senidego escolapioek sortu eta bultzatutakoa da, gizartean txartoen dauden pertsonen heziketaren alde egiten du, mundua aldatzeko hezkuntza biderik onena delakoan. Itaka Fundazioa 2001eko martxoaren 9an sortu zen, Itaka elkartearen (1.985) eta aurreko beste erakunde batzuk eta 1.597an Calasanzek hasitako escolapioen lana sendotuz.

Calasancio-Escolapios ikastetxearen helburua arlo horretan, ez da besterik solidaritatea hezkuntza-lanaren ardatzetako bat izatea baino, eta hor sartzen dira ikastetxeko jardura guztiak, bai eskola eremukoak zein eskolaz kanpokoak, solidaritaterako hezkuntza izan dadin ikastetxearen bereizgarrietako bat.

Ikastetxeak 120 urteko historia dauka, eta 30 urte baino gehiago dira lehenengo kanpaina solidarioak egin zirenetik eta oraindik ere orduan hasitako bideari eusten dio, balioetan hezteko bideari alegia. Horiek horrela, balioetan hezteaz eta sentsibilizazioaz gain, etengabe ari baikara horretan lanean, ikastetxean beste tresna garrantzitsu eta iraunkor bat daukagu: kanpainak eta gai baten inguruko asteak. Horien bidez, urteko sasoi batzuetan, munduko zenbait errealitate hurbiltzea sustatzen dute, balio jakin bat lantzen dute, betiere giro berezia sortzeko asmoarekin eta hezkuntza-proiektuak funtsezkoak diren elementu batzuk azpimarratzeko asmotan. Garrantzi handiko gaietan hezkuntza-komunitate osoa inplikatzeko dute.

Ikasturtean zehar kanpaina bi hauek egiten dituzte:

#### 1- Hegoko herriekiko solidaritate-kanpaina

Urtero-urtero egiten dugu era honetako kanpaina bat. 2012-2013 ikasturtean "Hezkuntzaren bidez bizitza ugartuz" kanpaina izan zen sari hauetara aurkeztu zutena.

Kanpaina horren bidez, Eskolapioak presentzia duten hegoaldeko herrialdeetako errealitatea hurbiltzen saiatu ziren; gabezia gehien dituzten herrialdeak izan arren, hezkuntza-lana behar-beharrezkoa da.

2- Bilbon egoera txarrean dauden taldeen aldeko solidaritate-kanpaina.

## **2014 - IV. Edizioa**

### **Otxarkoagako Lanbide Eskola**

Otxarkoagako Lanbide Eskola biztanle-talde ahulenei lotuta egon da, hamabi urtetik gorako ikasleak izaten ditu, lanerako adina dutenak ere bai, eta helburu izan du beti ikasleen arteko aldeak murriztea.

Zentrora joaten diren ikasle gehienek zailtasunak dituzte edo izan dituzte irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan. Mota horretako ikasleek premiak eta esperantzak, bai eta euren familia eta legezko arduradunenak ere, zeintzuk diren ikusita, beharrezkoa da dedikazio berezia eskaintzea ahalik eta gaitasun handienak eskuratu ditzaten, hartara, garapen pertsonal duina eta gizartean eta lan-munduan integratzeko aukera izateko.

Horretarako, ikasle horien ikaskuntza-prozesua ikastetxe-mota jakin batean gauzatu behar da: era askotako erantzunak eskainiko dituen ikastetxe batean, ikasleen ezaugarri eta beharrak kontuan hartuta, eta beti ikasle guztiak barneratu beharra aintzat hartuta. Otxarkoagako Zentroak pedagogoen taldea eta orientazio saila ditu horretan laguntzeko. Otxarkoagako Zentroak eskaintzen duena hau da: zailtasunak dituzten ikasleek ikaskuntza-prozesu arrunta daramaten ikasleekin elkarreragina izatea. Helburu nagusia da barruan duten onena ateratzea eta ikastetxetik ahalik eta titulazio altuenarekin irteatea.

**BILBOKO ELIZBARRUTIKO CARITAS-EK** Nazioarteko Lankidetzako programa sortu zuen 1995ean. 2001ean, beste herri batzuetatik Bilbora gero eta atzerritar gehiago iristen zirela ikusita, Bizkaiko Caritas erakundeak etorkinei programa guztietan arreta deszentralizatua ematearen aldeko apustua egin zuen. Globaltasunaren ikuspegitik eta ikusita migrazio-prozesuak ulertzeko orduan garatze-bidean dauden herrialdeetan miseria sorrarazten duten egiturazko kausak aztertu behar direla, horien ondorioz irten behar baitute euren jaioterrietatik bizimodu hobearen bila, Caritasek abian jarri zuen **NAZIOARTEKO LANKIDETZAKO ETA MIGRAZIOETAKO PROGRAMA**.

**Hezkuntzako Lehenengo Harrerako Programa** 2009/2010 ikasturtean egin zen aurrenekoz Prestakuntza Zentroan eta **Majarba proiektuaren** aitzindari izan da. Proiektu hori eskolaratze-programa osagarria da, kultur arloko trukearekin lotutako alderdiak landu eta Zentroan dauden kulturak elkarrengana hurbildu nahi ditu.

Iazko ikasturtean, Majarba Proiektua Eskolaratze-programa osagarria eta Hezkuntzako Lehen Harrerako programa izan zituen ardatz. Aurten, ordea, ikuspegi zabalagoa dute eta proiektuaren barrura sartu dira Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Hastapenetako Lanbide Kualifikaziorako Programa, hezkuntza arloko plan guztiak daude hor; horrez gain, ikastetxeko kultur arteko taldea ere badute.

## **2015 - V. Edizioa**

### **CP Maestro García Rivero**

Ikastetxe horrek egindako proiektuak “Grupo de Trabajo K-Abian” dauka izena eta bere helburua da eskolako komunitate osoko kide guztien artean jarduera kulturalak egitea, eskolaz kanpoko ordutegian, eta auzo osora zabaltzea. Duela sei urte guraso eta irakasle batzuk bildu ziren eta lan-talde bat osatu zuten. Taldea aldatu egin da eta eskolako edozein kidek har dezake parte taldean, bertan proposatzen diren jardueretan, diseinatzen, dinamizatzen, laguntzen... Urte hauetan hainbat jarduera egin dira. Jarduera guztietan zenbait balio lantzen dira, umeei hurbileko ingurua eta urruneko errealitateak errespetatuz hazi daitezten.

Jarduerarik interesgarrienetako bat MUNDUKO IPUINAK da. Horren helburua da eskolako familien jatorrizko hizkuntzen, errealitateen eta lekuen onespena bultzatzea. Beste herri eta kultura batzuk ezagutzeko, desberdintasunaren inguruko errespetua eta beste herri eta kulturenganako elkartasuna handitzen ahalegintzen dira. Horren helburua da eskolan jatorri desberdinak dauzkaten familiek senti dezaten kontuan hartzen dituztela, barnean daudela, onetsiak eta errespetatuak direla. Jarduera horretan, gurasoek beren jatorrizko herrialdeetako ipuinak kontatzen dituzte, ikusleak beste gurasoak, ikasleak eta irakasleak direlarik.

Beste jarduera berritzaile bat AUZOAN IRAKURRIZ GOZATU dauka izena. Horren helburua da umeei eta eskolako beste kideei auzora zabaltzea, elkarrekin gozatzeko ipuinarekin eta jarduera bat elkarrekin eginez. Modu aktiboan hartzen dute parte ikasleak, gurasoak, irakasleak, nebarrekek, aitita-amamek, ikasle ohiek, eskolako monitorek eta auzoko biztanleak.

Eskolan herrialde askotako jatorria daukaten ikasle asko dago eta umeen auzoetan ere aberastasun kultural handia dago. Esperientzia hori aprobetxatu egiten da gozamenezko une batean elkar ezagutzeko aukera bat izan dadin, gizarte integratzaile, konprometitu eta errespetuzkoa eraikitzen laguntzeko.

## **2016 - VI. Edizioa**

### **CEIP JM Sánchez Marcos LHI**

Ikastetxe horrek egindako proiektuak “Los derechos humanos de los niños y las niñas-Cuida eso que amas-Abraza el mundo: Un gran mundo en nuestra pequeña aula” dauka izena. Proiektu horren bidez, eskolako geletan dagoen aniztasunaren tratamenduari erantzun nahi zaio, lehen hezkuntzako 1. mailako ikasleekin. Batzuetan, ikastetxe honetako geletan dauden ohiturak, hizkuntzak eta aniztasun kulturala arazo- eta gatazka-iturri bezala bizi dira. Baina, aldi berean, altxortzat har daitezke horiek, eta proiektu honetan bidea apurka-apurka egin nahi da: ikasle bakoitzarengandik mundura eta mundutik gelara.

Proiektuan paisaia, ohitura eta kultura anitzak hurbiltzeko ahalegina egiten da eta, aldi berean, desberdinen artean elkarri entzutea, betiere familien inplikazioa sustatuz. Ikasturtean zehar ikasleek taldeka egin dute lan hainbat jardueratan; horietan funtsezkoa izan da familien inplikazioa.

Giza eskubideak zeintzuk diren aztertu dute, zeintzuk diren badakitela bermatze aldera eta gainerako pertsonen ulertzen dutela bermatzeko. Zuhaitz bat egin zuten, eta umeez euren autoerreturatuak itsatsi zituzten, pasilloan jarriz. Ahozko eta idatzizko jarduerak egin zituzten. "Zaindu maite duzun hori" abestiaren leloaren inguruan jarduerak egin zituzten. Parlamentu txiki baten egitura antolatu zuten, umeez zaindu beharreko hurbileko alderdiak adierazteko eta lantzeko: familia, adiskideak, eskola, euskara, hizkuntzak, ni-a, entzutea, egia, ikastea, errespetua. Hori guztia pasilloan jarri zuten horma-irudi batean islatu zuten.

Azkenik, ipuin-kontalarien jardunaldi batzuk antolatu zituzten, familiei gonbitea egin zitzaiezen istorio, gertaera, poema, abesti edo ipuinak nork bere ama-hizkuntzan kontatu zitzaizkien. Gainera, istorioak idatzi egin ziren jatorrizko hizkuntzan, denboran iraun zezaten. Era berean, neska-umeen jaioterrietako ezaugarri nagusiak aztertu ziren mapamundi batean.

## **2017 - VII.- Edizioa**

### **CEIP Miribilla HLIH**

"Antabora abesbatza eta *Miribilla Rules* Bideo Dokumentala" da ikastetxe horrek aurkeztutako proiektuaren izenburua. Proiektuaren helburu nagusia zen Bizikidetzaren lantzea, eskola-komunitateko kide guztiek elkarrekin jarduerak ludiko eta unibertsal bat egitea, abestea, eta hori auzora eta hiriko beste leku batzuetara zabaltzea. Bizikidetzaren posible dela erakutsiko duen jarduerak bat.

Aurkeztutako ekimenaren bitartez, zeharka, ondorengo alderdiak ere landu zituzten ikastetxean: Estigma; ikasleen inplikazioa jarduerak ludiko eta, era berean, hezitzaile batean; familien parte-hartzea eskolako bizitzan; euskararen erabilera komunikazio-hizkuntza komun gisa, eta entseatzaren eta errepikatzearen diziplina helburu bat lortzeko metodo gisa.

2015/2016 ikasturteko lehenengo hiruhilekoan egin zuten Antabora abesbatza abian jartzeko lehendabiziko koordinazio-batzarra. Batzar hartan, egingo zituzten jardueren egutegia diseinatu zuten. Helburua zen ikastetxeko ahalik eta ikasle gehienek eman zezatela izena, elkarrekin Antabora abestia ikasteko. Aldi berean, Gurasoen Elkarteak ere ikasleen senitarteko guztiak gonbidatu zituen abestia ikastera.

Martxoaren 21ean eman zitzaion amaiera bideo dokumentalean aurkeztu den lan-prozesu osoari; ikasturteko lehenengo bi hiruhilekotan egin zen abesbatza aurrera ateratzeko prozesua. Ikastetxean posible eta nahitaezkoa den bizikidetzaren benetan bilatzearen inguruan hitz egiten du dokumentalak.

Abestia prestatzeko eta abesti hori martxoaren 21ean ikastetxean bertan aurkezteko prozesuaz gain, bestelako jarduera batzuetan ere hartu dute parte abesbatzarekin: Ijito Herriaren Egunean (apirilak 8), Loraldian, Munduko Arrozak ekimenean.